

ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

Etxebizitza Sailburuordetzaren jarduketak birgaitzearen arloan. 2020

2021ko martxoa



Aurkibidea

1. Eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko partikularrentzako eta bizilagunen komunitateentzako laguntza-programa	5
1.1. Emandako diru-laguntzak	5
1.2. Diru-laguntzak birgaitze motaren arabera	6
1.3. Diru-laguntzen banaketa geografikoa	9
1.4. Jarduketa mota	11
2. Irisgarritasunerako laguntza-programa Udalentzat eta Toki Erakunde Txikientzat	12
3. Etxebizitzen eta eraikinen birgaitze eraginkorrerako laguntza-programa, ondare eraikien esku hartzeko proiektuak garatzeko	14
4. Babestutako birgaitzea Autonomia Erkidegoen arabera	15



Taulen aurkibidea

1 Taula	Etxebizitzak birgaitzeko diru-laguntzak, birgaitze motaren arabera. 2010-2020 _____	6
2 Taula	Diru-laguntzak eta Aurrekontu Babesgarria, Birgaitze komunitarioko eta Birgaitze indibidualeko jarduketaren arabera. 2020 _____	10
3 Taula	2020an onartutako diru-laguntzak, obra motaren eta laguntza motaren arabera _____	11
4 Taula	Irisgarritasuna hobetzeko Udalei eta Toki-Erakunde Txikiei emandako diru-laguntzak. 2013-2020 _____	12
5 Taula	2020 Irisgarritasun Programaren Aurrekontuaren banaketa, jarduketa motaren arabera _____	13
6 Taula	Irisgarritasuna hobetzeko Udalentzako eta Toki-Erakunde Txikientzako diru-laguntzak, lurralde historikoaren arabera. 2020an onartutako jarduketak _____	13
7 Taula	Etxebizitzak eta Eraikinak Eraginkortasunez Birgaitzeko Programaren barruan, 2018, 2019 eta 2020 Deialdietako ebazpenak, lurralde historikoen arabera _____	14

Grafikoen aurkibidea

1 Grafikoa	Birgaitutako etxebizitza kopuruaren eta guztira birgaitzera bideratutako diru-laguntzen zenbatekoaren bilakaera. 2006-2020 _____	5
2 Grafikoa	Laguntzen banaketa, esku-hartze motaren arabera. 2020 _____	6
3 Grafikoa	Birgaitzeko diru-laguntzen batez besteko zenbatekoa, motaren arabera. 2010-2020 _____	7
4 Grafikoa	Diru-laguntzen bilakaera, laguntza motaren arabera. 2006-2020 _____	8
5 Grafikoa	Birgaitzera bideratutako diru-laguntzen bilakaera, laguntza motaren arabera. 2011-2020 _____	8
6 Grafikoa	Emandako diru-laguntzen banaketa, lurralde historikoaren eta birgaitze-motaren arabera. 2020 _____	9
7 Grafikoa	Emandako diru-laguntzen zenbatekoaren banaketa lurralde historikoen eta laguntza motaren arabera. 2020 _____	9
8 Grafikoa	Diruz lagundutako jardueren aurrekontu babesgarriaren lurralde-banaketa. 2020 _____	10
9 Grafikoa	Laguntzen banaketa obra motaren arabera. 2020 _____	11
10 Grafikoa	Irisgarritasuna hobetzeko Udalei eta Toki-Erakunde Txikiei emandako diru-laguntzen bilakaera. 2013-2020 _____	12
11 Grafikoa	Erakunde onuradunen eta emandako diru-laguntzaren lurralde-banaketa. 2020 _____	13
12 Grafikoa	Emandako laguntzen eta etxebizitza onuradunen lurralde-banaketa. 2020 _____	15
13 Grafikoa	Babestutako birgaitzea ⁽¹⁾ autonomia-erkidegoen arabera _____	16

1. Eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko partikularrentzako eta bizilagunen komunitateentzako laguntza-programa

1.1. Emandako diru-laguntzak


Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko partikularrentzako eta jabekideen erkidegoentzako laguntza-programaren esparruan, Etxebizitza Sailak 14,2 milioi euroko laguntzak eman ditu guztira, eta 7.519 etxebizitza birgaitzen lagundu du. Balio horiek atzerakada handia izan dute aurreko urteetan erregistratutako zifrekiko; zehazki, % 33 txikiagoa etxebizitza-kopuruari dagokionez, eta % 27 txikiagoa diruz lagundutako zenbatekoari dagokionez, 2019. urtearekin alderatuta.

2020ko zifrak dira, etxebizitzei dagokienez, 2006ko ekitaldiaz geroztik aztertutako serie estatistiko osoko baliorik txikiena. Emandako diru-laguntzen zenbatekoari dagokionez, balioa asko urruntzen da azken hiru urteetako diru-laguntzetatik eta 2013-2015 aldiko zenbatekoen antzekoa da.

Beharakada handi horren azalpena 2020an Covid-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz bizi izan den ezohiko urtean bilatu behar da, eragin ekonomiko eta sozial handiak izan baititu. Ziurgabetasun-egoera horren ondorioz, ekitaldi honetarako aurreikusitako jarduera asko hurrengo urteetarako atzeratu dira ziurrenik, eta, gainera, konfinamendu-hilabeteek eragin handia izan dute espedienteen administrazio-kudeaketarako gaitasunean.

Hala ere, eta 2020. urtea txarra izan arren, 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Planean gauzatutako hiru urteei erreparatuta, birgaitutako etxebizitzaren bolumena 29.160 da, Planean aurreikusitako helburuaren % 93 lortuz.

1 Grafikoa Birgaitutako etxebizitza kopuruaren eta guztira birgaitzera bideratutako diru-laguntzen zenbatekoaren bilakaera. 2006-2020



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

1.2. Diru-laguntzak birgaitze motaren arabera

Laguntzei buruzko araudiak diru-laguntzen zenbateko eta ehuneko handiagoak ezartzen ditu birgaitze-jarduketak Birgaitze Integratuko Eremuetan egiten direnean. Hala ere, emandako diru-laguntza gehienak birgaitze isolatuko jarduketei dagozkie. Zehazki, eta 2020ko ekitaldiko eragiketei erreparatuta, birgaitze isolatura bideratutako diru-laguntzen zenbatekoa 11,5 milioi eurokoa da, guztizkoaren % 81, eta birgaitze integratura, berriz, gainerako % 19a, 2,6 milioi euro.


Tipologia bakoitzean jasotako etxebizitzaren kopuruari dagokionez, birgaitze isolatua guztizkoaren % 89 da (6.716 etxebizitza) eta birgaitze integratua gainerako % 11 (803 etxebizitza).

1 Taula Etxebizitzak birgaitzeko diru-laguntzak, birgaitze motaren arabera. 2010-2020

	Birgaitze isolatua		Birgaitze integratua		Guztira Birgaitzea	
	Kopurua	Mila €	Kopurua	Mila €	Kopurua	Mila €
2010	17.196	17.395	1.729	3.252	18.925	20.647
2011	14.367	11.975	1.736	3.783	16.103	15.758
2012	14.151	14.212	1.340	2.773	15.491	16.985
2013	12.170	12.168	1.197	2.364	13.367	14.532
2014	10.438	11.082	913	2.370	11.351	13.452
2015	10.394	11.834	960	2.741	11.354	14.575
2016	9.354	12.577	1.033	3.192	10.387	15.777
2017	12.152	16.999	1.455	3.968	13.607	20.968
2018	9.043	13.775	1.402	4.148	10.445	17.923
2019	9.907	15.450	1.289	4.058	11.196	19.507
2020	6.716	11.517	803	2.651	7.519	14.168
Metatua 2018-2020	25.666	40.742	3.494	10.857	29.160	51.598
Batez beste 2006-2009	15.768	13.175	1.707	3.408	17.475	16.583
Batez-beste 2010-2012	15.238	14.527	1.602	3.269	16.840	17.797
Batez-beste 2013-2017	10.585	13.123	1.090	3.068	11.675	16.193
Batez-beste 2018-2020	8.555	13.581	1.165	3.169	9.720	17.199

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

2 Grafikoa Laguntzen banaketa, esku-hartze motaren arabera. 2020




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

Etxebizitza bakoitzeko batez besteko diru-laguntzari dagokionez, birgaitze integratuko eragiketen batez bestekoa 3.302 €-koa izan zen 2020an, birgaitze isolatuko jarduketetan etxebizitza bakoitzeko emandako 1.715 € baino askoz gehiago, lehenengoek bigarrenekin alderatuta jasotzen dituzten zenbateko handiagoen ondorioz.

Esan behar da, nahiz eta 2020an beherakada izan den, bai diruz lagundutako zenbatekoan, bai laguntza horien onuradun izan diren etxebizitzaren kopuruan, etxebizitza bakoitzeko diru-laguntzen batez besteko zenbatekoak igo egin direla, eta estatistika-serieko baliorik handienak direla.

2019ko ekitaldiarekin alderatuta, birgaitze integratuko eremuetan emandako batez besteko diru-laguntza % 5 handiagoa izan da 2020an, eta birgaitze isolatuaren batez bestekoa % 10 hazi da.

3 Grafikoa Birgaitzeko diru-laguntzen batez besteko zenbatekoa, motaren arabera. 2010-2020




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza.

Programa honen helburu nagusia eraikineko komunitate-elementuak birgaitzea da. Horretarako, komunitatearentzako zuzeneko laguntzak eta banakako laguntzak aurreikusten dira, araudiak ezarritako baldintza jakin batzuk betetzen diren kasuetan. Jabekideen erkidegoarentzako laguntzek diruz lagundutako zenbateko osoaren erdia inguru hartzen dute (% 49,5); erkidegoko jarduerak egiteko banakako laguntzek, berriz, guztizkoaren % 4,9 biltzen dute.

Gainerako % 1,5a etxebizitzetako elementu pribatiboetan jarduketak egiteko partikularrentzako laguntzei dagokie.

Banaketa horrek ez du ia aldaketarik izan azken 7 urteetan; aurreko aldietan, aldiz, banakako laguntzek zuten protagonismo handiagoa, azken urteetan garrantzi handiagoa izan duten komunitatearentzako zuzeneko laguntzen kaltetan.

4 Grafikoa Diru-laguntzen bilakaera, laguntza motaren arabera. 2006-2020




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

Diruz lagundutako zenbatekoari dagokionez, komunitatearentzako zuzeneko laguntzak 7 milioi eurokoak ziren 2020an (9,7 milioi euro 2019an), eta partikularrentzako laguntzak, berriz, 6,9 milioi eurokoak (9,7 milioi euro 2019an). Bestalde, obra indibidualak egiteko diru-laguntzak 210.230 eurokoak dira 2020an.

5 Grafikoa Birgaitzera bideratutako diru-laguntzen bilakaera, laguntza motaren arabera. 2011-2020

DIRU-LAGUNTZA



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza


1.3. Diru-laguntzen banaketa geografikoa

2020an emandako laguntza guztien banaketa geografikoa honakoa da: Bizkaiak % 57,7 barne hartzen du, Gipuzkoak % 27,1 eta Arabak gainerako % 15,3. Banaketa hori nabarmen aldatzen da birgaitze isolatuko edo integratuko jarduketeki erreparatuz gero.

Zehazki, egiaztatu da Gipuzkoak protagonismo handiagoa duela birgaitze integratuko eremuetako eragiketetan, diruz lagundutako etxebizitzaren % 53,7 biltzen baititu, Bizkaiak % 35,5 eta Arabak % 10,9.

6 Grafikoa Emandako diru-laguntzen banaketa, lurralde historikoaren eta birgaitze-motaren arabera.


2020



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

Lehen esan bezala, laguntza gehienak eraikinetako komunitate-elementuetan jarduketak egiteko erabiltzen dira. Laguntza horien banaketa lurraldearen arabera honakoa da: Bizkaian % 47,3, Gipuzkoan % 42,2 eta Araban % 10,5. Birgaitze indibidualeko jarduketetan kasuan, Arabak du protagonismo handiena: laguntzen % 31,3, Gipuzkoan % 28,3 eta Bizkaian % 40,4.

7 Grafikoa Emandako diru-laguntzen zenbatekoaren banaketa lurralde historikoen eta laguntza motaren arabera. 2020



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

Etxebizitza Sailburuordetzak emandako birgaitze-laguntzek inbertsio pribatuaren bolumen handia mugiarazten dute. Zehazki, diruz lagundutako 14,2 milioi euroek 362 milioi euro inguruko inbertsioa mugiarazi dute. Inbertsio hori diruz lagundutako jardueren aurrekontu babesgarriari dagokio, eta Bizkaia % 55,4, Gipuzkoa % 36,1 eta Arabak % 8,7.

2 Taula Diru-laguntzak eta Aurrekontu Babesgarria, Birgaitze komunitarioko eta Birgaitze indibidualeko jarduketan arabera. 2020


Lurralde Historikoa	Etxebizitza kopurua	Diru-laguntza guztira	Aurrekontu Babesgarria
Birgaitze komunitarioa			
Araba	1.070	1.464.714	30.738.237
Bizkaia	4.254	6.592.910	199.117.600
Gipuzkoa	1.972	5.889.236	129.666.474
GUZTIRA	7.296	13.946.860	359.522.311
Birgaitze indibiduala			
Araba	66	62.245	595.979
Bizkaia	82	80.335	758.199
Gipuzkoa	64	56.378	1.089.853
GUZTIRA	212	198.958	2.444.032
BIRGAITZEA, GUZTIRA	7.519	14.168.363	361.966.343

Aurrekontu babesgarria: diruz lagundutako esku-hartzeen kostu erreala, hau da, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketan babesgarri gisa aitortutakoa, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko aginduak zehazten duenaren arabera.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

8 Grafikoa Diruz lagundutako jardueren aurrekontu babesgarriaren lurralde-banaketa. 2020

AURREKONTU BABESGARRIA: BIRGAITZEA GUZTIRA: 361.966.343€



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

1.4. Jarduketa mota

Programa honen bidez diruz laguntzen diren jarduketa moten artean, eraikinen egitura eta eraikuntza egokitzeko eragiketak nabarmentzen dira 6,9 milioi euroekin, hau da, diruz lagundutako zenbateko osoaren % 49. Bigarrenik, eraikinen ingurutzaileren gaineko jarduketak (efizientzia energetikoa) 4 milioi euro inguru dira (guztizkoaren % 28), eta, ondoren, irisgarritasuna hobetzeko jarduerak, 3,2 milioi euroekin (guztizkoaren % 22,6).


Azkenik, askoz pisu txikiagoa dute akabera eraikuntza onaren printzipioetara egokitzeko jarduerak (71.200 €) eta EITen ordainsariak estaltzeko diru-laguntzek (1.800 €).

3 Taula 2020an onartutako diru-laguntzak, obra motaren eta laguntza motaren arabera

Obra mota	Diru-laguntza guztira
Egitura- eta eraikuntza-egokitzapena	6.928.462
Etxebizitza-egokitzapena irisgarritasuna hobetzeko	3.200.310
Isolamendua	3.966.590
Akabera eraikuntza onaren printzipioetara egokitzea	71.200
EITen ordainsariak	1.800
Guztira	14.168.363

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

9 Grafikoa Laguntzen banaketa obra motaren arabera. 2020



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

2. Irigarritasunerako laguntza-programa Udalentzat eta Toki Erakunde Txikientzat

Irigarritasun unibertsala bermatzeko asmoz, hiri-espazioak eta eraikin publikoak egokitzeko udalei eta udalerrira baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeei zuzendutako 2020ko deialdiak 4,3 milioi euro bideratu ditu guztira. Zenbateko hori aurreko bi urteetako baino nabarmen txikiagoa da: 6 milioi euro 2019an eta 6,4 milioi euro 2018an. Berrito ere, pandemia eta bere ondorioak emaitzen beherakadaren atzean daudela dirudi.


Guztira, 4,1 milioi euro erabili dira 68 obra egiteko (% 95) eta 217.000 euro 18 irigarritasun-planak idazteko eta eguneratzeko (% 5).

4 Taula Irigarritasuna hobetzeko Udalei eta Toki-Erakunde Txikiei emandako diru-laguntzak. 2013-2020

Urtea	Planak		Obrak		Guztira	
	Kop.	m. €	Kop.	m. €	Kop.	m. €
2013	37	407	152	1.393	189	1.800
2014	24	249	57	2.251	81	2.500
2015	32	300	102	2.700	134	3.000
2016	26	302	142	2.698	168	3.000
2017	23	377	72	2.923	95	3.300
2018	25	293	141	6.107	166	6.400
2019	29	366	112	5.634	141	6.000
2020	18	217	68	4.084	86	4.302

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

10 Grafikoa Irigarritasuna hobetzeko Udalei eta Toki-Erakunde Txikiei emandako diru-laguntzen bilakaera. 2013-2020



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza.

Diruz lagundutako obra motari erreparatuz, egiaztatu da laguntzen erdia baino gehiago hiri-igogailuak instalatzeko erabili direla (2,5 milioi €). Urbanizazio-lanek 750.000 euro inguru jaso dituzte; arrapalak, ibiak eta eskudelak instalatzek 537 mila euro, eta eraikin publikoak egokitzeak 288 mila euro.

5 Taula 2020 Irisgarritasun Programaren Aurrekontuaren banaketa, jarduketa motaren arabera

	2020ko deialdia	
	Esleitutako zenbatekoa	%
Urbanizazioa	748.096,8	17,4
Hiriko igogailuak	2.511.033,0	58,4
Eraikinen egokitzapena	287.862,1	6,7
Arrapalak, ibiak eta eskudelak	537.202,2	12,5
Planak	217.476	5,1
GUZTIRA	4.301.670	100,0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza


Lurralde-azterketak agerian uzten du Gipuzkoako ordezkartza handiagoa dela, emandako diru-laguntza osoaren % 59 (2,45 M €) eta diruz lagundutako jardueren % 42 (36) biltzen baititu. Bizkaia diru-laguntzaren % 34 bereganatzen du (1,46 M €) eta jarduketaren % 34 (29), eta Arabak diru-laguntzaren % 9 (388 mila €) eta jarduketaren % 24 (16 obra eta 5 plan).

6 Taula Irisgarritasuna hobetzeko Udalentzako eta Toki-Erakunde Txikienezako diru-laguntzak, lurralde historikoaren arabera. 2020an onartutako jarduketak

Lurraldea	Planak		Obrak		Diru-laguntzak guztira
	Kop.	Diru-laguntza (€)	Kop.	Diru-laguntza (€)	
Araba	5	48.252	16	339.921	388.445
Bizkaia	7	68.144	19	1.391.848	1.459.991
Gipuzkoa	6	100.807	30	2.352.425	2.453.233
EAE	18	217.476	68	4.084.194	4.301.670

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

11 Grafikoa Erakunde onuradunen eta emandako diru-laguntzaren lurralde-banaketa. 2020



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

3. Etxebizitzen eta eraikinen birgaitze eraginkorrerako laguntza-programa, ondare eraikian esku hartzeko proiektuak garatzeko

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko uztailaren 8ko Aginduaren bidez, etxebizitzen eta eraikinen birgaitze eraginkorraren arloko laguntzen programaren 2020ko deialdia aratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko.

Laguntza-programa horren esparruan, 2020ko deialdian, 8,9 milioi euroko diru-laguntza eman da guztira. Azpimarratu behar da birgaitze-programak, orain arte aztertu direnak (1 eta 2) ez bezala, **birgaitze eraginkorrerako programak hazkunde handia izan duela azken urtean.**

Izan ere, Etxebizitza Sailak aurrekontua 2 milioi euro handitu zuen programa horretan, pandemiaren aurreko berehalako erantzun gisa, eta, lehen aldiz, kanpoko espazio berriak sortzeko eta kanpoko espazioak handitzeko (terrazak eta balkoiak) obrak sartu zituen birgaitze integral osorako ohiko proiektuei gehitu beharreko jarduketak babesgarrien artean.


Zehazki, emandako laguntzak 2019koak baino % 39 handiagoak dira, eta kontzentrazio handia dago Gipuzkoan (5,6 milioi euro, guztizkoaren % 63). Horri dagokionez, deigarria da 2019ko deialdia Bizkaian egindako jarduketetan gauzatu zela nagusiki (guztizkoaren % 65), eta 2018ko deialdian Arabak jaso zituela emandako diru-laguntza gehienak (diru-laguntza guztien % 47).

7 Taula Etxebizitzak eta Eraikinak Eraginkortasunez Birgaitzeko Programaren barruan, 2018, 2019 eta 2020 Deialdietako ebazpenak, lurralde historikoen arabera

Urtea	2018 DEIALDIA. Aurrekontua €			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE guztira
2018	201.420	82.794	140.786	425.000
2019	876.768	360.399	612.833	1.850.000
2020	1.137.429	467.545	795.027	2.400.000
2021	710.893	292.216	496.892	1.500.000
Guztira	2.926.509	1.202.954	2.045.537	6.175.000
Urtea	2019 DEIALDIA. Aurrekontua €			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE guztira
2019	67.132	358.420	124.449	550.000
2020	238.012	1.270.760	441.228	1.950.000
2021	292.938	1.564.013	543.050	2.400.000
2022	183.086	977.508	339.406	1.500.000
Guztira	781.167	4.170.701	1.448.132	6.400.000
Urtea	2020 DEIALDIA. Aurrekontua €			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE guztira
2020	206.616	315.879	895.237	1.417.731
2021	291.474	445.611	1.262.915	2.000.000
2022	575.660	880.083	2.494.257	3.950.000
2023	218.605	334.209	947.186	1.500.000
Guztira	1.292.355	1.975.782	5.599.595	8.867.731

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

12 Grafikoa Emandako laguntzen eta etxebizitza onuradunen lurralde-banaketa. 2020



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritza

4. Babestutako birgaitzea Autonomia Erkidegoen arabera


Kapitulu honetan, autonomia-erkidegoetan egindako birgaitze babestuko jarduketan azterketa konparatiboa egiten da. Lehenik eta behin, kontuan izan behar da Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren Estatistikak ez dituela jaso autonomia-erkidego guztietako datuak, eta, beraz, eskuragarri dauden datuak dituzten autonomia-erkidegoei buruzko informazioa baino ez da ematen.

Hurrengo grafikoan, azken hiru ekitaldietarako (2018-2020¹) birgaitze babestuko jarduketan datuak jasotzen dira. Informazio hori kontuan hartuta, egiaztatu da birgaitzera bideratutako laguntzen kopurua handiagoa dela Euskal Autonomia Erkidegoan gainerako autonomia-erkidegoetan baino, azken urtean izan ezik (datuak 2020ko irailera arte soilik daude eskuragarri), Galizia baita EAE gainditzen duen erkidego bakarra.

Azken urteari erreparatuta (2019), Euskal Autonomia Erkidegoan 12.018 etxebizitza daude guztira birgaitzeko laguntza-eskaeren barruan, eta ondoren Gaztela eta Leon (10.657 etxebizitza) eta Galizia (10.416 etxebizitza).

¹ Datuak soilik 2020ko irailera arte

13 Grafikoa Babestutako birgaitzea⁽¹⁾ autonomia-erkidegoen arabera



- (1) Autonomia- eta estatu-planetan babestutako birgaitze-eskaerei buruzko datuak.
- (2) 2020ko irailera arteko datuak

Iturria: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa